



Janire Etxabe

Arte Ederretan lizentziatua, dantza flamenkoan hasi zen, Christina Lindergardekin La Alamedan eta Maria Martinekin Andoni Aresti dantza eskolan. Aireko dantzan trebatu zen arnesarekin, Dani Tomas (Bartzelona) 2016, Juan Leiba (Madril) 2017, Ludovica Zoe (Bartzelona) 2018, Magalie Lanriot (Lisboa) 2020, eta Il Posto-Wanda Moretti (Venecia) 2021, koreografoekin beste batzuen artean.

DANTZA BERTIKALA

Dantzariak hainbat lekutan zintzilikatuz egiten duten dantza ikusgarria da dantza bertikala (mendiko hormetan, zuhaitzetan, etab.). Euskarri gisa paretan erantsiriko segurtasun elementuak, arnesa eta soka erabili ohi dituzte. Bertikalki kulunkatuz dantza eginez, hainbat akrobazia tekniko egiten dituzte (mortalak,

jauziak, etab.), eta grabitatearekin jolas eginez, ikuskizun paregabe bezain zirraragarria sortzen da.

2017an DIMEGAZ (@dimegaz) kultur elkarteak sortu zen, Janire Etxaberen eskutik, bere pasioak (soka, harria eta dantza) performance ezberdinetan batuz. Proiektuak hainbat arlo



guztiak Euskal Herriko baso, horma eta kobetan egiten dira, hainbat formatutan kaleratuz: zuzeneko emanaldiak, entsegu irekiak, solasaldi dantzatuak, dantza irteerak (mendi eta harrobietara) eta formakuntzak. Hurrengo urtera begira hainbat formakuntza eskaintzea aurreikusita dute. Ikastaroei buruzko informazioa guztia eskuragarri dago Bizkaiko Mendi ferederazioaren web orrian (<https://bmf-fvm.org/escuela-de-alta-montana/>).

Egun, "HARRIA HERRIA" emanaldiaren biran Oreka TX txalapartariekin "DENDU" proiektuan lanean jarduteaz gain, garapen fasean dagoen "Haize lerroa" proiektuan dihardu. Imanol Marrodan sortzailearen "Begiradarekin egindako aire lerro bat" lanean inspiratutako ikus-entzunezko proiektu performatiboa da, eta 2012an euskal kultura eta mitologian oso esanguratsua den mendi batean egindako ekoizpena du ardatz. Proiektu hau gauzatzeko, eta dantza bertikal guztiak erregistratuz, Ekaitz Zilarmendi argazkilaria eta Phelipe Eizagirre kameralaria ditu lankidetzan bidelagun.



uztartzen ditu: dantza bertikala, eskalada, espazio naturalak, euskal kultura, etab. Helburua Euskal Herriko espazio naturalan ekoizpen artistikoak gauzatzea da. Dimegazeko zuzendariak bere proiektuen ekoizpena eta zuzendaritza diseinatu eta kudeatzen ditu, hala nola "Harria Herria" film laburra (2019), nazioartean saritua.

Honetaz gain, Janire Etxabek HARROBI Dantza Bertikala (@harrobi.dantzabertikala) konpainia sortu du, bere zuzendaritza artistikoaz arduratzen delarik. Konpainia honen bitartez Dimegazekin sortzen diren ikusentzunezko proiektuak zuzeneko emanaldietan eskaintzen dira. Konpainiaren ekoizpen koreografiko